

Denboraren makina
Teleskopioak
400 urte

▣ *Ezpalak*
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*
▣ *Makina bat kontu*

Ihesi
Lesaka,
Sanferminak
baino gehiago

ARGIA

erdiko kaira

kultura eta aisia

Senegal antzeztokian



Abenduaren azken egunekin abiatu ziren Errenteriatik (Gipuzkoa) Cassamancera (Senegal) Mikelazulo kultur elkarteko hamahiru lagun antzeztokian. Lan hori aurkezteaz gain, sormena bide eta helburu zuen proiektu bat gauzatu nahi zuten, *Bide ikusezinak marrazki* izenekoa. Cassamancen bizi den diola herriaren kultura sakonean ezagutzea zen xedea, eta bide batez han egiten den antzerkiari buruzko zertzelada batzuk biltzea. Mikelazuloko Oier Guillanek bidaiaren kronika egin du ARGIArentzat.

Cassamanceko Decalé dantza taldeko kide bat ikuskizun batean.

2008ko martxoaren 2a

ARGIA

25

Antzerkia Cassamanceko eran

OIER GUILLAN

CASSAMANCE ESKUALDEA Senegal hegoaldean dago. Diola etniaren kultura da nagusi han: diola hizkuntza hitz egiten da batik bat –iparraldean, Dakarren, wolofa da nagusi, frantses kolonialarekin batera–, eta fetitxearen kultura dute oinarri, objektu material zehatz batzuekiko debozioa. Urte luzez gatazka armatua egon da, diolarrek independentzia aldarrikatzen dutelako, izaera propioa duen kulturari errespetua, alegia. Egun su-eten egoeran daude, eta gero eta ezagunagoa ari da bilakatzen nazioartean, turismo agentzien eraginez.

Iritsi eta gutxira jaso genuen Cassamanceko antzerkiari buruzko lehen zertzelada: herrian pertsona zahar bat hiltzen denean, bere bizitza osoa antzezten dute herriko plazan. Herrialdeko sormenari arreta jartzeko datu interesgarria.

2001ean izan ginen aurreneko aldiz Mikelazuloko kide batzuk emanaldi batekin Cassamanceko Oussouye herrian. Garai hartan ez zegoen

su-etenik eta kontrol militar zorrotzak pasa behar izan genituen. Urte hartan Ufuler antzerki taldearekin batera eskaini genion Oussouyeko herriari ikuskizuna.

Ufuler taldeak egin zuen emanaldia txundigarria izan zen guretzat, eskemak apurtu zituzkigun: dantza tradizional ikusgarriak uztartzen zituzten ezagunak egiten zituzkigun antzerki eszena kostunbristekin. Izugarri poetikoak iruditu zitzaizkigun zenbait momentu, musika eta kantua antzerkiarekin eszena berean uztartzen zituztenean bereziki. Erabiltzen dituzten perkusio instrumentuen artean bada sakratua den bat, bongolong izenekoa, txalapartaren jotzeko moduarekin antza handia duena, eta urte hartan aukera izan genuen bi instrumentuak batera jotzeko.

Oroitzapen horrekin berarekin abiatu ginen 2007ko amaieran. Hamahiru kideak batzen gintuen antzezlan eskaintzearekin batera sormen

Cassamanceko Hussanum Ayi antzerki taldeko bi aktore, antzezlari batean.



lantegiak egitea genuen xede: musika, gorputz perkusioa, pintura, antzerkia... Hamabost egun besterik ez genuen hango jendearekin komunikatzeko, elkar ezagutza giroa sortu eta haien egunerokotasunean, labur bada ere, integratzea lortzeko. Elkar trukaketa moduan beti ere. Zeregin horretan, horren denbora gutxirekin, herri osoari antzezlan bat eskaintzeak muga mordo apurtzen du; une batetik bestera “turista zuri” soil bat izateari uzten ahal diozu, kalean ere antzezlan bateko pertsonaia bilakatu.

Antzerki lehiaketa

Irtisi orduko jarri ginen harremanetan hango taldeekin. 2001ean ezagututako Ufulelek azken urteotan sari ugari jaso du Senegaleko hainbat jaialditan. Beraiekin batera ezagutu genituen oraingoan Hussanum Ayi antzerki taldea eta Decalé dantza taldea. Proposamena luzatu ziguten: guk lehiaketa hitza bereziki gogoko ez dugun arren, horrelako zerbait antolatu nahi zuten lau taldeekin, beraien artean aski errotuta dagoen ohitura delako.

Biziki interesgarria iruditu zitzaigun beraien lan egiteko modua, eta azkenean onartu genuen: lehian parte hartzen duten taldeek gai bera aukeratzeko, kasu honetan “inmigratio klandestinoa”, beraiek esaten duten moduan. Talde guztiek emanaldiaren egitura bera erabiltzen dute gaia lantzeko. Lau zatitan banatutako ikuskizuna da haiena: lehenbizi talde osoak gaia kantuz aurkezten duen koroa osatzen du; gero neurri handi batean elkarrizketetan oinarritutako antzerki pieza eskaintzen dute; gaiarekin loturik musika eta dantzan oinarritutako ospakizuna dator ondoren; eta azkenik poema luze bat, gaiarekiko gogoeta proposatuz. Ikusleen artean herritarrekin batera esertzen den epaimahaiak –irakasleak gehienbat– atalez atal puntuatzen du talde bakoitza, eta puntuen batuketaren arabera erabakitzen da irabazlea.

Nahasketa arrunt interesgarria iruditu zitzaigun, are gehiago aukeratu zuten gaia ikusita. Behingoatik, Euskal Herrian egunero komu-



Mikelazukoko kideak Cassamanceko haur batzuekin.

nikabideetan dabilen gaia biktimen eta protagonisten ahotik entzun ahal izango genuen, antzerki moduan gainera.

Haur, gazte, heldu eta zahar. Herri osoa elkartu zen emanaldiak ikustera. Guk ez genuen gai bera landu, baina salbuespen gisa onartu zuten. Gure ikuskizuna beraiantzat sortu genuen, fetitxearen kultura hartu baikenuen abiapuntu hitzik gabeko gidoia prestatzeko: Mari gaixo dago, hiltorian, mito zaharrek inguratzen dute, gizakiok ahaztu ditugunez itzal bilakaturik. Marik mito berriak erditzen ditu, baina umorearen hegaletan osatugabeak, hautsiak jaitzen dira; gure egungo gizartearen baloreak islatzen dituzte, hauek ere osatugabeak, hautsiak, zaurituak sentitzen ditugulako. Hori guztia adierazteko bi metroko txotxongilo bat, dantza, pintura, txalaparta, perkusio tresnak, joaleak...

Ikusgarriak dira Cassamanceko dantzak. Perkusioa tresnen bidez edo gorputzaren beraren bidez lantzen dute; gorputzak astintzean energia itzela adierazten dute, gorputz osoa arnas-taupadaren parte balitz bezala. Antzerki eskolarik gabeko sasoi, sentimenduarena. Dantza egite-rakoan zenbaitek jartzen duten aurpegia ikusi besterik ez dago.

Hussanum Ayi taldearen antzerki pieza elkarrizketa luze bat izan zen, pateratan doazenek eman behar dituzten pausoak islatzen zituena. Ufulel taldekoek oso bestela egin zuten, Euro-

gure!
 artean!
 euskaraz

Antzerkia Cassamancen

erdiko kalerara

para ateratzen direnetik bizi duten prozesu osoa erakutsi zuten, pateran dauden tartea barne; gorputza eta irudimena espazio hutsean baina espazioaren konposizioa barneratuta, une berean eszena diferentek eman zitezkeen agertokiko guneetan. Hamar bat taldekide ziren eta oso ondo neurtzen zuten espazioaren erabilera, Europar ikus daitekeenaren antzekoa iruditu zitzaigun hori.

Ufulel taldeko Mololi Yabon zuzendari gazteak beraientzat gaiak zuen garrantzia azaldu zigun: “Gazteongan oso presente dago inmigrazio klandestinoa, egun Europara doazen txalupa asko ateratzen dira Cassamancetik”. Ez hori bakarrik, 2002. urtean Cassamance Dakarrekin komunikatzen zuen ferrya hondoratu egin zen, eta komertziorako garraio bide garrantzitsua izanik, Oussouyeko jende asko ito zen, artean Mololiren gertuko senide eta lagunak: “Antzezlan honetako testua idazterakoan hori guztia islatzen saiatu naiz, itsasoa eta gure herriaren saminaren arteko harremana”.

Ufulel taldeak planteatu zuen antzerki pieza dramatikoak zen oso, heriotza present. Eta hala ere, gure harridurarako... publikoa barrez leheritzen zegoen une oro. Guk zur eta lur jarraitzen genuen dena. “Nolatan hartzen du barrez jendeak horren dramatikoak den zerbait?” galdetu genion gerora Pierre Diatta, hango lagun bati. “Drama bat da, baina badakite antzerkia antzerkia dela. Aktoreak herrikoak dira gainera, ezagunak. Zergatik egingo dute negar?”.

Cassamancen publikoa ez da Europakoa bezalakoa. Zergatik? Badakielako bisitariok ez dugula txalo berezirik espero, ez prentsa erre-



Txotxongilo handi bat, dantza, pintura, txalaparta, perkusio tresnak eta joaleak erabili zituzten Mikelazulo kultur elkarteko kideek Cassamancen aurkeztu zuten antzezlanean.

portajerik, ez kritikarik, ez dirurik, ez ezer. Komunikazioa biluzik, badago edo ez dago. Kito. Oso gutxitan antolatzen dituzte horrelako ospakizunak, are gutxiago atzerriko talde batekin. Guk emanaldi bat gehiago baino, beraiekin batera nolabaiteko errito batean parte hartzen genuela sentitu genuen. Orain zazpi urte aurreko ikuskizunarekin izan ginenean ere, euskal mitologia zen neurri batean protagonista. Oussouyeko taldeekin egindako lehen bileran, ordezkarietako batek gu ikusi eta ezustean, bi hitz bota zituen euskaraz, “Erreka Mari”, orduko pertsonaia baten izena. Zazpi urteren ostean baino, zazpi bizitzen ostean, hitz horiek

entzunda sentitutako zirrara zaila da azaltzen.

Konpetizioan bigarren gelditu ginen, Hussanum Ayi lehenengo. Lotsa galanta sentituko genuen irabaziz gero, hortaz eskerrak!

Djenbereng herrian ere errito sentsazio horrekin eskaini genuen emanaldia. Beraientzat sakratua den zuhaitz erraldoiaren azpian, laurhuan urte zahar den zuhaitza, herri osoaren aurrean, eguzkia jartzen ari zen orduan. Antzokirik gabe, argiztapenik gabe, produktu bat saltzen ari gineneko sentsaziorik gabe... sormenaren bidezko komunikazioa posible dela sentitu genuen, diolarren begirada zorrotz, irribarresuetan islatuta.

Pena bakarra gelditzen zaigu: guk hara joateko aukera landu dugun bezala, beraiek itsasoz bakarrik egin ahal izatea gauza bera. Sormena baino, harresiak dantzatzu. Noiz ikusi ahal izango dugu Ufulel bezalako talde bat libreki antzeztentz gurean? Komunikazioa alde batean, ezintasuna bestean. ■



BERMEO

Otsailaren 29tik Martxoaren 4ra arte, Lamera Plazan

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

Bizi irakurriz!